

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak ibilgailuak garatzeko probetarako pista inauguratu du, ibilgailu iraunkorrek garatzeko bereziki

Nafarroako Gobernuak 1.757.216 euroekin finantzatu du Volkswagen-ek lagatako lursailetan dagoen azpiegitura hori eta automobilgintzako Nafarroako enpresentzat zabalik dago

Martes, 16 de octubre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak gaur goizean Landabengo Volkswagen-en lantegiko instalazioetan inauguratu du automobilgintzako Nafarroako enpresentzat zabalik dagoen ibilgailu iraunkorrek garatzeko probetarako pista. Harekin batera, bertan izan dira lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea, eta Industria, Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Jorge San Miguel. Volkswagen-en aldetik, bertako zuzendari nagusi Patrick Danau eta autoen kalitatearen arduradun Albert Mayer. Halaber, Oltzako teniente-alkate Reyes Latienda eta Iruñeko alkate Enrique Maya izan dira.

Bere [agerraldian](#), Lehendakariak eskertu egin du Volkswagen-ek Nafarroako Gobernuan izandako konfiantzagatik adieraziz "elkarlanerako adibide bikaina dela honako hau", eta "lagatako lursaileri esker, proiektu garrantzitsu hau gauzatu ahal izan dela. Haren laguntzarekin Nafarroa mugikortasun iraunkorraren buru izan dadin nahi dugu, ingurumenarekin konpromiso handia duena".

Proiektua Nafarroaren energia-estrategiaren barnean, ibilgailu elektrikoaren sustapenaren barnean eta Moderna Planaren barnean kokatzen da. Azpiegitura berri horri esker, energia-iturri alternatiboak edo kontsumo eraginkorrek dituzten ibilgailu iraunkorrek esperimentatu,



Eskuinetik ezkerrera: Barcina Lehendakaria, Goicoechea eta Maya probetarako pistan zehar.



homologatu, hobetu eta garatu ahal izango dira, Nafarroari sektorean abantaila lehiakorrek eman ahal izateko beste eskualde batzuekin alderatuz; Nafarroan lan egiten duten automobilgintza-sektoreko enpresa guztien zerbitzura dagoen industria-hornidura gisa planteatuta dago.

Probetarako pista berria Nafarroako Gobernuaren eta Volkswagen enpresaren arteko lankidetzaren publiko-pribatuaren emaitza da. Xede horrekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen 2011ko uztailean Nasuinsa (orain Nasuvinsa) sozietate publikoaren eta Volkswagen enpresaren artean; haren arabera, enpresak bereak diren 227.000 metro koadroko lursail batzuk doan laga dizkio (Arazuriko 2. industrialdeko 616. eta 636. lursailak) azpiegitura hori eraikitzeko. Aldiz, Nasuvinsa arduratu da hura eraikitzeaz bilatzen diren helburuekin bat etorritik (energia-mailan eraginkorragoak diren teknologiak homologatzea eta hobetzea eta ingumena gehiago errespetatzen dutenak). Lankidetzaren publiko-pribatu horri esker, asko merkatu dira Enpresa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak 1.757.216 euroekin finantzatu dituen pista berriko eraikuntza-kostuak.

1.400 metroko luzera eta zola bereziak proba mekanikoetarako

102.000 metro koadroko jarduera-azalera duen instalazioak 1.400 metroko pista perimetrala du eta 4 metroko zabalera; horiekin batera, azeleratzeko (550 metro) edo balaztatzeko (100 metro) gune bereziak daude, bai eta zola nahiz zoru irregularrak ere portaera mekanikoko probak egiteko. Zazpi zati eraiki dira proba berezietarako (410 metro): uhin sinusoidalak (20 metro), altxatutako kutxatilen estalkiak (20 metro), hondoratutako kutxatilen estalkia (20 metro), galtzada-harri belgikarrak (60 metro), galtzada-harri irregularrak (100 metro), galtzada-harri erregularrak (100 metro) eta iltze-ilara (90 metro).

Ingurumena gehiago errespetatzen duten ibilgailuak

Nafarroa 2020 III. Plan Energetikoaren arabera, Foru Komunitateak 20-20-20 Europako Energia estrategia bete behar du. Estrategia horrek planteatzen du 2020an CO2 isurketak % 20 murriztea. Murrizketa horren zati bat energiaren erabilera eraginkorrago batetik etorri behar du, eta beste zati bat erregai fosilen ordeztu gutxiago kutsatzen duten beste erregai alternatibo batzuk erabiltzetik (garraio-sektorean bereziki).

Testuinguru horretan, Nafarroako Ibilgailu Elektrikoa Sustatzeko Plana abiarazi zen (VEN Plana), eta plan horren helburua da Nafarroa erreferentziazko eskualde bihurtu dadin ibilgailu elektrikoak egiten nahiz erabiltzen. Hori guztia Moderna Planaren barnean sartzen da, eta hark dio Ekonomia Berdea etorkizuneko ekonomia nafarraren euskarrietako bat izan behar duela.

Galería de fotos



Barcina Lehendakaria, Mayer eta Danauren artean, zinta moztzen.



Patrick Danau eta Barcina Lehendakaria, Volkswagen-en lehengo modeloen aukeraketa baten alboan.